

ESPAINIAKO ESTATUKO GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO PROGRAMEN KOMUNIKATUA

Sinatzaileok, Estatu espainiarreko giza eskubideen defendatzaileak babesteko programek, COVID-19k munduan sortu duen osasun-krisia eta haren kudeaketa politikoa ikusita, honen bidez, kezkatuta gaudela adierazi nahi dugu, giza eskubideen defendatzaileak, haien erakundeak eta kolektiboak arriskuan daudelako gaur egun, eta gero eta egoera larriagoa dutelako.

Pandemiaren ondorioak arintzeko ezarri zen larrialdi- eta alarma-egoeraren aurretik ere, mundua krisi sistemikoak jota zegoen: ingurumena degradatzen ari zen, emakumeen aurkako indarkeria nonahi zebilen eta desberdintasun ekonomiko eta sozialak sakon errotzen ari ziren, besteak beste.

Begi-bistakoa denez, COVID-19aren osasun-krisiak inpaktu are handiagoa du ahulezia- eta prekaritate-egoeran daudenengan, eta halaxe daude, nola ez, giza eskubideak defendatzen dituztenak.

Eskualde eta herrialde desberdinetan gurekin batera lan egiten duten erakunde, kolektibo eta komunitateek adierazi digute beren bizimodu duina eta segurua kolokan daudela azkenaldian, besteak beste, arrazoi hauengatik:

Osasun-krisiaren inguruan altxatutako hesi mediatikoa dela-eta, ikusezin bihurtzen ari dira defentsariek jasaten dituzten hilketak, mehatxuak eta jazarpenak.

Konfinamendu-egoerak are gehiago ugaritu ditu komunitate askok lehendik ere pairatzen zituzten krisi humanitarioak, eta lider sozialak are ahulago egin dituzenez, orain "*jomuga erraza*" dira, ezin direlako inora joan; eta pandemiaren aurretik horixe zuten estrategia aproposena, leku batetik bestera ibiltzea, seguru izateko eta bizitza babesteko.

Kolonbian, Indepaz agentziaren datuen arabera, 84 lider sozial erail dituzte aurten, apirilaren 24ra arte (17 konfinamendu-aldian), bai eta bakea sinatu duten 24 pertsona ere (horietako 5 pandemian), eta estatua jendea babesteko hartutako neurriak murrizten ari da. Gainera, nekazarien komunitateek, herri indigenek eta herri beltzak alde biko su-etena eskatu diete Gobernu Nazionalari nahiz estatukoak ez diren talde armatuei, egoera honetan are arrisku gehiago eragiten dutelako beren lurraldean, eta kinka larrian izan dezaketelako bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubideak, eta janaria eta osasuna izateko aukerak.

Talde armatu horiek sinatutako panfletoak agertu dira, prebentziozko isolamendu neurriak ezartzeko nahi eta nahi ez, mehatxuen bitartez.

Hondurasen, El Salvadorren eta Guatemalan, militarizazioan, oinarrizko eskubideen etenean edo etxeratze-aginduetan oinarritutako larrialdi-planak aplikatu dira, eta horrek, autoritarismoa indartu ez ezik, biztanleriaren zati handi baten biziraupen-moduak hondatu ditu ¹.

[IM-Defensoras taldearen komunikatua \(2020ko martxoak 20\).](#)

¹ *COVID-19:Krisi honetan, premiazkoa dugu autoritarismoa geldiaraztea eta bizitza, zaintza, eskubideak eta giza duintasuna defendatzea.*

Mexikon, giza eskubideak defendatzeko lanean dabiltzanen kontrako indarkeriak bere horretan jarraitu du, martxoaren 23an berrogeialdia ezarrita ere. Oraindik ere oso egoera kezkarriak daude leku askotan, krimen antolatuen taldeek eta funtzionario publikoek biztanleria zibila erasotzen dutelako, megaproiektuen eraikuntzaren aurka eta beren lurraldeetak ingurumenaren defentsan jarduten direnei errepresaliak egiteagatik. Apirilean 5 defendatzaile eta gutxienez 2 kazetari hil zituzten.

Halako kasuetan, % 99 zigorrik gabe geratzen dira.

Babes Federaleko mekanismoa gainezka eginda dago indarkeria hori menderatu ezinik.

Egoera horren aurrean, Nazio Batuetako giza eskubideen adituek komunikatu bat kaleratu zuten martxoan, estatuei galdegiteko pandemiaren ondorioak arintzeko ezarritako neurriak ez zitzatela erabili giza eskubideen defendatzaileak isilarazteko.

Apirilean, erakunde horrek berak dei egin zien herrialdeei guztiei pandemia, *"ikuspegi kooperatibo globaletik eta giza eskubideetan oinarrituta"* lantzeko.²

Espainiako Estatuan babes-programak koordinatzen ditugun gizarte zibileko erakundeek eta administrazio publikoek bat egin dugu eskaera horrekin, eta

gobernuei, administrazio publikoei eta horien inguruko betebeharren titularrei honakoa eskatu diegu:

- Herritarren askatasun indibidual eta kolektiboak mugatzeak ez dezala ekarri lurraldeen militarizazioa, kontrol soziala edo ekintzaile eta lider sozialen jazarpen eta errepresioa areagotzea.

COVID-19aren krisian giza eskubideen defendatzaileen aurka egindako hilketa eta erasoen egile material eta intelektualak ikertzea eta epaitzea.

Kolektiboekin zuzeneko elkarrizketa izatea, bereziki arrisku handieneko egoeran daudenekin, hala nola landa-komunitateekin (nekazariak, indigenak eta afrikarren ondorengoak), emakume defendatzaileekin eta LGTBI pertsonekin, haiekin batera berriazko babes-neurriak adosteko aldera eta, bide batez, haien jakintzak eta bizitzaren defentsan dituzten esperientziak aintzat hartzeko.

Preso politikoaren osasuna babesteko neurriak har daitezela; izan ere, preso horiek, kasu askotan, pilatuta eta osasun txarreko egoeratan egoten dira, eta, ondorioz, haien bizitza arrisku handiagoan dago.

Espainiako Estatuak, 2020ko apirilaren 29a

SINATZAILEAK

2 <https://www.un.org/es/coronavirus/articles/protoger-derechos-humanos-coronavirus>

- Kolonbiako Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Programa asturiarra
- Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan babesteko Programa / Programa Vasco de Protección Temporal para Defensores y Defensoras de los Derechos Humanos (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia eta CEAR-Euskadi).
- Programa Català de Protecció a defensors i defensores dels Drets Humans / Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko Kataluniako programa (Generalitat de Catalunya eta Comissió Catalana d’Ajuda al Refugiat).
- *Barcelona protegeix periodistes de Mèxic/Barcelona protege a periodistas de México* udal-programa (Ajuntament de Barcelona eta Taula per México).
- Babes Osorako eta Giza Eskubideen Defendatzaileak Hartzeko Valentziako Programa (Valentziako Udaleko eta CEAR-País Valenciàko Garapen Lankidetzarako eta Migrazioarako Zinegotzigoa).



EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea

ACCD Agència Catalana de Cooperació al Desenvolupament

Generalitat de Catalunya

CEA(R)
Comissió Catalana d’Ajuda al Refugiat

PROGRAMA CATALÀ DE PROTECCIÓ DE DEFENSORS I DEFENSORES DELS DRETS HUMANS **DH!**





AJUNTAMENT DE VALÈNCIA
COOPERACIÓ AL DESENVOLUPAMENT I MIGRACIÓ

